

Berrikuntza Gizarte Zientzietan, Geografian eta Historian

1. Oinarrizko datuak

- **Modulua:** Espezifikoa III
- **Izaera:** Hautazkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Mitxelko Uranga Alvarez

2. Irakasgaiaren azalpena eta testuingurua

Ikasgai honetan Gizarte Zientzietako irakaskuntza-eredu berritzaileak landuko ditugu, garai berrietara egokitu behar duen irakaskuntza-eredua lortu aldera. Geografia eta Historia ikasgaiaren arazoak eta alternatibak ikusiko ditugu, irakaslearen rola ikuspegi berritzaile batetik aztertuko dugu eta geroan erabili ahal izango diren baliabide berriak sortuko ditugu, betiere elkarlanean eta IKT-en erabileran oinarritutakoak.

3. Konpetentziak

- Hezkuntza-proposamen berritzaileak ezagutzea eta aplikatzea Gizarte Zientzien eta Geografiaren ikaskuntzaren esparruan
- Irakaskuntzaren, praktika egokien eta orientazioaren jarduera kritikoki aztertzea, kalitate-adierazleak erabiliz
- Gizarte Zientzien, Geografiaren eta Historiaren irakaskuntzari eta ikaskuntzari buruzko arazoak identifikatzea eta alternatibak eta konponbideak proposatzea
- Ikertzeko eta ebaluatzeko oinarrizko metodologiak eta teknikak ezagutu eta aplikatzea
- Ikerketa, berrikuntza eta ebaluazioko proiektuak diseinatu eta garatzeko gai izatea gizarte-zientzien, geografiaren eta historiaren ikaskuntza-irakaskuntzan

4. Ikas-eremutik

- Ikasleak irakaskuntzaren proposamen tradizionalak eta berritzaileak bereizi eta alderatzen ditu.
- Ikasleak irakaskuntza tradizionalak sortzen dituen arazoak eta gabeziak identifikatzen eta ulertzen ditu.
- Ikasleak geroan aplikatu ditzakeen proposamen berritzaile egingarriak diseinatzeko dituzten gaitasunak.

5. Edukiak

1. Giza eta Gizarte Zientzien ikuspegi nagusiak heziketari buruz.
2. Gizarte Zientzietako irakasleek ikasgelan aurki ditzakeen arazo nagusiak.
3. Gizarte Zientzien irakaskuntza-ikaskuntzarako baliabide berritzaileen sorkuntza.

6. Metodologia

Ikasgaiak **ikaskuntza autonomo eta esanguratsua** bultzatuko du **metodologia aktibo** baten bidez, eta UEUren online ikas-irakaskuntzarako eredu pedagogikoan oinarrituko da. Alderdi teorikoa eta praktikoa uztartuko ditu, arreta ikaskuntza-prozesuan eta konpetentzietan jartzeko.

7. Tutoretza

Tutoretza-saioen helburua ikasgaiaren inguruko zalantzak argitzea izango da. Bideo-bilera sinkronoak izango dira, eta, ikasgaiak irauten duen bitartean, bi egingo dira gutxienez. Saioen egunak eta ordutegia irakasleak proposatuko ditu Ikasgela Birtualean.

8. Ebaluazioa

Ikasgaien ebaluazioa jarraitua eta hezitzailea izango da. Kalifikazioetarako, gai bakoitzeko zereginak, azken produktua eta parte-hartzea baloratuko dira. Ikasketa-prozesuan zehar eginiko hausnarketa pertsonalei eta talde-dinamikan eginiko ekarpenei ere garrantzia emango zaie.

9. Bibliografia

- TRAVE GONZALEZ, G. (1998): La investigación en la didáctica de las ciencias sociales, Univ de Huelva.
- ESCUADERO, J.M. (2006): La formación del Profesorado y la mejora de la educación, Octaedro.
- PRATS, J. (ed.) (2002): La secundaria a examen, Proa.
- PRATS, J. (coord.) (2011): Geografía e historia. Investigación, innovación y buenas prácticas. Graó.
- PLA, S. (2005): Aprender a pensar históricamente. La escritura de la historia en el Bachillerato, México, Plaza y Valdes.
- GOMEZ RODRIGUEZ, A.E./ NUÑEZ, P. (2006): Formar para investigar, investigar para formar en Didáctica de las Ciencias Sociales, AUPDCS, Antequera.
- AVILA, R.M^a/ LOPEZ ATXURRA, R./ FERNANDEZ DE LARREA, E. (eds) (2007): Las competencias profesionales para la enseñanza-aprendizaje de las Ciencias Sociales ante el reto europeo y la globalización, AUPDCS, Bilbo.

Bibliografia osagarria:

VELASCO, M./DIAZ DE RADA, A. (Ed.) (2007): Lecturas de antropología para educadores. el ámbito de la antropología de la educación y de la etnografía escolar. Trotta. Madril.

JOCILES, M.I./FRANZÉ, A. (Ed.) (2008): ¿Es la escuela el problema? Perspectivas socio-antropológicas de etnografía y educación. Trotta. Madril.